

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**171/2020 Foru Agindua, uztailaren 23koa. Behin betiko onestea, baldintzekin, Bastidako udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, instalazio fotovoltaikoei buruzkoa**

#### I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Bastidako udalbatzak, 2016ko uztailaren 20ko bilkuran, hasierako onespea ematea erabaki zuen Bastidako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualari, energia elektrikoa teknologia fotovoltaikoaren bidez sortzeko instalazioen erabilera baimentzeko (ekainaren 6ko 413/2014 Errege Dekretuaren b.1.1. azpitaldea), Bastidako herriguneko hiri lurzoru urbanizagarrian.

Erabakia ALHAOren 92. zenbakian argitaratu zen, 2016ko abuztuaren 19an, bai eta El Correo egunkarian ere, 2016ko abuztuaren 9an. Aldaketa osatzen zuen dokumentazioa hilabete egon zen jendaurrean, eta ezarritako epealdian ez zen kontrako alegaziorik aurkeztu.

Bigarrena. Bastidako udalbatzak, 2016ko urriaren 26an eginiko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespena ematea aldaketa horren espedienteari.

Hirugarrena. Hirigintza aldatzeko proposamena Gatzaga Buradongo Administrazio Batzarrari bidali zitzaion, aintzatesi zezaten eta haren inguruko txostena egin zezaten hilabete epean, haren eskumenekoak ziren alderdiei zegokienez. Eskaera hori 2018ko uztailaren 20an jakinarazi zen, baina hartarako emandako epean Gatzaga Buradongo Administrazio Batzarrak ez zuen txostenik eman.

Laugarrena. Aldaketa ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren pean jarri zen. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren martxoaren 1eko 55/2016 Foru Aginduaren bidez (2016ko martxoaren 14ko ALHAO, 30. zk.), aldaketari buruzko ingurumen txosten estrategikoa eman zen, hirigintza dokumentuan zenbait ingurumen baldintza eransteko betebeharrarekin.

Bosgarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, uztailaren 18ko 3/2018 bilkuran, espedientearen aldeko txostena egitea erabaki zuen, lurralde antolamendura egokitzeari dagokionez, bai eta URA-Uraren Euskal Agentziak egindako aldeko txostena bidaltzea ere organo eskudunari, aldaketa behin betiko onets zezan.

Seigarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2018ko irailaren 12an aurkeztutako idazki baten bidez, Bastidako Udalak espediente bidali zuen, behin betiko onets zedin.

Zazpigarrena. Arabako Foru Aldundiak Bastidako Udalari eskatu zion zuzendu eta hobetu zezala espediente 2018ko irailaren 26ko, 2019ko otsailaren 15eko, 2019ko azaroaren 27ko eta 2020ko otsailaren 20ko idazkien bidez.

Zortzigarrena. Bastidako Udalak, 2020ko uztailaren 6an, eskatutako dokumentazioa bidali zuen, eta eskatu zuen behin betiko onets zedila aldaketa.

Bederatzigarrena. Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko, espediente horri buruzko txostena eman zuen Arabako Hirigintza Batzordeak bere 2/2020 bilkuran, uztailaren 16an.

## II. OINARRIAK

Lehenengoa. Udalak sustatu duen espediente honen xedea da aldatzea indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioak, beste erabilera bat baimentzeko; hau da, energia elektrikoa teknologia fotovoltaikoaren bidez ekoizteko instalazioak jartzeko, Bastidako herriguneko eremu hauetan: hiri lurzorua I. zabalgunea, II. zabalgunea eta III. zabalgunea, eta lurzoru urbanizagarriaren eremu guztiak.

Egin nahi dena da berariazko baimena eman teknologia fotovoltaikoko energia elektrikoa sortzeko instalazioak jartzeko, baldin eta eguzkiaren energia soilik erabiltzen badute lehen mailako energia gisa (b.1.1 azpitaldea, ekainaren 6ko 413/2017 EDren sailkapenaren arabera), eraikinen estalkietan. Horregatik, eremu horien erabilerei buruzko 78, 100, 126 eta 160 artikulua aldatzen dira, bai eta indarrean dagoen erabilera matrizea ere.

Hartara, energia elektrikoa teknologia fotovoltaiko bidez ekoizteko instalazioak hiri lurzoru urbanizagarriko eremu guztietako eraikinen estalkietan ezarri ahalko dira, salbu eta herrigune historikoko eraikinenenetan, herrigunea zaindu eta haren izaera eta itxura ez aldatzeko.

Bigarrena. Dokumentu teknikoak aldaketa justifikatzen du, erabilera bat ezartzea ahalbidetzeko, zeina ez baitzen existitzen indarrean dauden arau subsidiarioak idatzi eta onetsi zirenean, xedea baita hiri lurzoru urbanizagarriaren erabileren arauketa oraingo energia testuingurura egokitzea, bat etorri orain indarrean dauden lurralde antolamenduko zuzentzaruen helburuekin eta udalaz gaindiko klima estrategiarekin. Gainera, aldaketa honek aukera ematen du legeztatzeke udalerriko 3 poligonoko 784 lurzatian dagoen eraikinaren estalkiko instalazio fotovoltaikoa.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoan (Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 55/2016 Foru Aginduaren bidez eman zen, eta agindu hori 2016ko martxoaren 14ko 30. zenbakiko ALHAOn argitaratu zen), zenbait alderdi azaltzen ziren, eta haiek egokiro jaso dira hirigintza dokumentuan, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2020ko apirilaren 20an egindako txostenean adierazten den bezala.

Laugarrena. Aldaketaren egokitasuna eta bidezotasuna justifikatua dago, ahalbidetzen duelako energia berriztagarrien alde egiten laguntzen duen jarduera bat, lurraldearen jasangarritasuna bultzatzeko.

Azpmarratu behar da ezen, kultura ondarearen eta paisaiaren gaineko inpaktua mugatzeko, ez direla sartu aldaketaren eremuan Bastidako eta Gatzaga Buradongo herrigune historikoak, eta "paisaian integratzeko azterlana" egiteko betebeharra aurrekusi dela, herrigune historikotik hurbil egoteagatik herrigune horretan eragin esanguratsua izan dezaketen jarduketetarako.

Beste alde batetik, dokumentu teknikoan zuzendu beharreko zenbait alderdi daude. Hauexek dira:

1. 2020ko urtarrilaren 17ko Addenda txertatu behar da dokumentu teknikoan.

2. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, dokumentazio guztia aurreko apartatuan adierazitako baldintzarekin osatuta aurkeztuko da, \*pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan; hain zuzen ere, \*doc edo \*docx luzapeneko fitxategietan.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Bastidako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espediente, energia elektrikoa teknologia fotovoltaikoaren bidez sortzeko instalazioen erabilera Bastidako herriguneko hiri lurzoru urbanizagarri baimentzeari buruzkoa, baldintza hauekin:

1. 2020ko urtarrilaren 17ko Addenda txertatzea dokumentu teknikoan.

2. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, dokumentazio guztia aurreko apartatuan adierazitako baldintzarekin osatuta aurkeztuko da, \*pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan; hain zuzen ere, \*doc edo \*docx luzapeneko fitxategietan.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, espedientea Arabako Foru Aldundiari igorriko zaio, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 23a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*